

“Telebistak ordaintzen du eta, ondorioz, agindu”

Juan Martinez de Irujo
Pilotari noblea

Eta ona, kontxo, onena. Galdetu bestela
Olaizolari.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Eduardo Vidarte



Juan...

Aizu, zu ere abizenaren kontura trufaka? Bada, jakin ezazu, nobletzat dut neure burua: aurrez aurre begiratzen dut parez pare dudana.

Ados, hitz egin dezagun pilotaz: hemen iraultzaile bat.

Iraultzailea ez, beti jokatu izan dut horrela. Pentsa, debutaren egunean, hogeita bana markagailuan, boleaz erantzun nion sakeari. Eta, hala ere, irabazi egin genuen.

Hori ba, pilota munduko Ronaldinho!

Arrazoi duzu: nahi baino gutxiagotan ateratzen zaizkit gauzak nahi bezala.

Beste konparazio bat futbolarekin: frontoietara ere iritsi dira forofoak.

Baina pasa gabe: hemen ez da inor ez ezer iraintzen.

Bai, tira. Bigarren kirolik ikusiena omen da telebistan.

Eta lehen? Ez dago gaizki bigarren izatea, baina lehenaren bila joan behar dugu.

Zeren lepotik baina? Nekatzean ere ezin izango duzue deskantsatu.

Telebistak ordaintzen du eta, ondorioz, agindu. Zenbat eta jende gehiagok ikusi, eta publizitate gehiago sartu, hobeto.

Ez dut ulertzen: zer gehiago egin behar duzu Arguiñano irujozale egin dadin?

Arguiñano Olaizolaren jarraitzailea da pilota-

zale handia delako, eta Asegarceko zuzendaritzakoa.

Zera, Zubietak eta Bengoetxeak dutela fama, baina...

Fama eta ondo irabazia. Besteok ez gara hain goapoak, hain erakargarriak, baina pozik gaude daukagunarekin.

Pilotan garrantzitsua da fisikoa, baina baita burua ere. Txapelak janzteko batez ere.

Gora iristeko eskailerarik onena da burua, bai jauna.

Zure izaeraz mintzo dira ugari, baina gogorra behar du takorik gabe jokatzek, ezta?

Gogorra oso. Batzuetan pasa egiten naiz, baina kendu baino gehiago eman dit nire izaerak.

Bestela debekatu, tabakoa legez, hauren ordutegia aitzakia.

Nire kasuan ez luke eraginik izango, fabrikatibakoa naiz hala.

Urrun daude Retegiren hamaikak?

Urrun, urrun. Are oraingo lehiaketa sistema-ekin: lehen finala baino ez zuen jokatzeko txapeldunak. Retegiri ezer kendu gabe, noski.

Ezer kendu nahi gabe, noski, azkena 39rekin irabazi zuen. Adin horrekin zer, kantxan, erretiratu, euskara ikasten oraindik?

Kantxan nahi nuke, baina ikusiko. Eta euskara ea berriz hartzen dudana. Orain, alabarekin, akaso arrankatuko naiz atzera. ■